



KUDEAKETA AURRERATUAREN 30. EUROPAKO ASTEA

Urriak 14-25

KONGRESU FORMATUAREN ONARPEN ZEHAZTAPENAK

- Aurreikuspenen arabera, **Kongresua urriaren 16an eta 17an egingo da**, Bilboko **Euskalduna Jauregian**, **streaming** bidez indartuz.
- Kongresuan EUSKALITek aukeratutako gaiak landuko dira. **Bi gai-multzo handi** izango dira, gure ustez, horiek agerian uzten baitute kudeaketaren munduan gaur egun dauden joerak: **Lehiakortasun iraunkorra eta Pertsonen zaintza eta fideltasuna**.
- Erakunde antolatzaileek **proposamen bat aurkeztu beharko dute**, eta hor jaso beharko dute **Kongresuan parte hartzea justifikatuko duen jardunbide egokia edo esperientzia arrakastatsuren bat**.
- **Partaidetzarik egokienak zein diren kudeaketa eta komunikazioaren arloko adituez osatutako Batzorde batek erabakiko du**. Horretarako, hainbat **irizpide** hartuko dituzte kontuan, hala nola, berritasuna, emaitzak, zeharkakotasuna, sektore oreka, komunikabideen interesa, etab.
- **Batzorde honen erabakiaren berri uztailean emango da**. Hala, Kongresurako aukeratu ez diren erakundeek ere **Europako Astearen parte hartu ahal izango dute**, **Kongresutik kanpo beste ekitaldiren bat antolatuz**, erabakitzen den formatuan (aurrez-aurre, online edo biak).
- Aukeratutako erakundeek konpromisoa hartu beharko dute **EUSKALITekin batera ekitaldi bat** gauzatzeko, horrek dakarren guztiarekin (aldean arteko komunikazioa, agendaren eta denboraren kudeaketa, etab.).
- Formatu honetan, **areto eta baliabide tekniko guztien gastuak EUSKALITen bizkar geratuko dira**. Antolatzaileak izan ditzakeen gainontzeko beharrak, ospatze-lekuak dituen erraztasunen, zein Asteak duen aurrekontu eraginkorraren baldintzapean geratuko dira.

KONGRESU FORMATUAREN KANPOKO ANTOLATZAILEEN ONARPEN ZEHAZTAPENAK

- Kongresutik kanpo egiten diren ekitaldietan EUSKALITek aukeratutako gaiak landuko dira. **Lehentasunezko bi gai izango dira**, gure ustez, horiek agerian uzten baitute kudeaketaren munduan gaur egun dauden joerak: **Lehiakortasun iraunkorra eta Pertsonen zaintza eta fideltasuna**.
- **Beste gai batzuk baloratzeko aukera egongo da**, Kudeaketa Aurreratuko Elementuei lotuta badaude (Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza eta Emaitzak).
- Erakunde antolatzaileek **proposamen bat aurkeztu beharko dute**, eta hor jaso beharko dute **Europako Astearen parte hartzea justifikatuko duen jardunbide egokia edo esperientzia arrakastatsuren bat**.
- **Partaidetzarik egokienak zein diren kudeaketa eta komunikazioaren arloko adituez osatutako Batzorde batek erabakiko du**. Horretarako, hainbat **irizpide** hartuko dituzte kontuan, hala nola, berritasuna, emaitzak, zeharkakotasuna, sektore oreka, komunikabideen interesa, etab.
- **Batzorde honen erabakia uztailan jakinaraziko da**. Proposatutako gaiak **bat ez badatoz EUSKALITek lehenetsitako gaiekin edo Astearen helburuarekin**, Batzordeak erabaki dezake **ekitaldi hori Europako Astearen esparruan ez sartzea**.
- Ekitaldi horiek **antolatzaileen baliabideekin egingo dira**, zuen ustez egokiena den moduan (aurrez aurrekoa, streaminga, online), eta egokitzen jotzen duen formatuan eta iraupenean (mahai-ingurua, bertaratutako publikoaren edo publiko birtualaren hitzaldia eta galderak, etab.).

ANTOLATZAILEEN KONPROMISOAK

- **Epeen betetzearekin bereziki zorrotzak izatea behar dugu**, gainerako lankideen lana eta antolaketaren fase guztiak errespetatu ditzagun, Astearen antolaketa pertsona eta erakunde askoren ahalegin garrantzitsua suposatzen duelako.
- Behin Astea bukatuta **antolatzaile moduko inkesta betetzea**. EUSKALITentzat oso garrantzitsua da zuen iritzi eta iradokizunak biltzea, Astearen hurrengo edizioak hobetzeko, eta zuen ekitaldira bertaratutako pertsonen kopurua jakiteko.
- EUSKALITI sortu daitezken **edozein aldaketa edo ustekabe** aurrerapen nahikoarekin **jakinarazi**.

EUSKALIT